


Astekaria

BARREN

elgoi



la 500 pertsona kirol ikastaroetan

*Banco Vasconia, oportetan ere zutaz akordatzen da.
Ekipaje osoa ezezik 4-B tarjeta, Visa, CH/gasolina eta Mondial Assistance
ere eskaintzen dizu Euskal Herrian, Espainian, European eta abar...*

Errosario 33, Elgoibar. Tel. 74 05 62-74 05 66



BANCO DE VASCONIA

3 LAU HANKATAN

"Azken urteotan etxe askotako bazterrak astintzen aritu den birus baten berri eman nahi dizuet..." **Diana Perez de Albeniz.**

6 ERREPORTAIA: HIZKUNTZAK ATZERRIAN

Hizkuntza bat jatorrizko herrian ikastea ezinbesteko baldintza bihurtu da hain zail bilkatu den lan mundurako.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: BIDAIAZTEKO, TRENA ALA AUTOBUSA?

Itziar Konde: "Bietako bat aukeratu behar izanez gero, egin behar dudan bidaia luzea ala motza den begiratuko nuke"

Miren Arrieta: "Neri trenean ibiltzea asko gustatzen zait"

16 BERBETAN

Marta Etxabe: ELGOIBARTIK VENEZUELARA

18 KIROLA

GAIA: ERANTZUN EZIN HOBEA IZAN DU UDAKO KIROL KANPAINAK

ELKARRIZKETA: **Gorka Garate:** ETORKIZUN HANDIKO JUDOKA

20 ELKARTEETATIK BUELTAN

UDAL TXISTULARI TALDEA: MENDEETAKO TRADIZIOA

21 KULTURA

ZERBITZU BERRIAK MARTXAN KULTUR ETXEAN

PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

TXANDAK

FARMAZIAK:

3, larunbata: **BIDASOLO**

4, igandea: **BIDASOLO**

5, astelehena: **ETXEBERRIA**

6, asteartea: **ETXEBERRIA**

7, asteazkena: **ETXEBERRIA**

8, osteguna: **ETXEBERRIA**


9, ostirala: **ETXEBERRIA**

OKINDEGIAK:

4, igandea: **EIZAGIRRE**



HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



LAU HANKATAN



Diana Perez de Albeniz

"Partikulitis aguda"

Azken urteotan etxe askotako bazterrak

kolore eta zaporetako partikularrak: mate, kimika, ingelesa, solfeoa, bibolina...

astintzen aritu den birus baten berri eman nahi dizuet, hilgarria ez bada ere, osasunerako nahiko kaltegarria izatera iritsi daitekeena, eta hain famatua egin zaigun "estres" izeneko pertsonaiarekin harreman intimotan behin baino gehiagotan ikusia izan dena. Birusaren izena jakiterik izan ez dudan arren, sortarazten duen gaisoa "partikulitis aguda" izeneko delat esan dezaket.

Kontra egiterik ez badauka, bigarren mailako sintomak agertzen dira, partikularizatutako semealaben soinean oraingoan: egonezina, itotzen egotearen sentsazioa, inpotentzia eta frakasu sentimendua... tamaina arinean hasera batean. Sendabide bat aplikatzen ez bada, berriz, gehiagotzen joateko ohitura dute ezaugarri hauek, desagertaraztea gero eta zailagoa bihurtzen doalarik.

Edozein motako pertsonari eraso badiezaioke ere, arrisku talderik ezagunena, eskolara joateko adineko haurrak dituzten gurasoen kolektiboa dugu.

Eta, zein daiteke sendabidea? Jokuaren botere terapeutikoa hor dago egon. Helduak lanaren ondoren atsedean beharrean aurkitzen diren legez, eskolaumeek jolasteko beharra daukate. Gainera, tentsioa lasaitu eta libertzeko balio izatearekin batera, jokuak trebezia soziala, ingurunearekin harremanetan aritzeko trebezia garatzen anitz laguntzen du.

Sintomak aski ezagunak ditugu: Semealabek eskolan ikasten dutena beren etorkizunean lanpostu duin bat topatzeko adina izango ez delakoan, batbihurilau partikularretara bidaltzen dituzte, probetxuzko gizakume haziko direlako sinesmenean. Halere, badago gai honen inguruan aritzen diren adituen artean, beste ikuspuntu bat azaltzen duen gutxiengo bat, umeak gaintetik kentzeko egiten dutenaren teoria defendatzen duena, teoria frogatugabea noski.

Hori dela eta, bakuna miresgarri bat sortzen ez duten bitartean, begiak zabal-zabalik, argi ibil zaitezten gomendatzen dizuet; zuen inguruko norbait "partikulitis aguda" honen sintomekin dabilela susmatzen baduzue, jolasaren eta aisialdiaren terapiaren berri emaiozue. Agian horrela, izurri berri bat bilakatzekotan dabilen gaisotasun hau geldierazteko moduan izango gara oraindik.

Lehen mailako sintoma hauen aurrean, birusak joak eskeintza zabala aurkitzen du bere mina asetzeko; mila

- Argitaratzailea**
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26
- Laguntzailea**
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegia
- Hizkuntza Arduraduna**
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio kontseilua**
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua
- Kazetaria**
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**
Maite Rementería
- Publizitatea**
Amaia Leiaristi
- Administrazioa**
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste
- Kolaboratzaileak**
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta
- Banaketa arduradunak**
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
- Helbidea**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
- Inprimategia**
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
- Tirada**
3.000 ale
- Lege gordailua**
SS-1.038/92
- ISSN**
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



**ileapaindegia
estetika**

IDAMA

Santa Ana, 7
Tel. 74 40 26

Fotero

**OKINDEGIA
OPILDEGIA**

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Batzar Aretoa dela eta

Gizonek gizonarentzako eraturako gizarte batean bizi garelako, guk emakumeok eskubide askogatik borrokatu eta gure egoera aldarrikatu behar izan dugu.

Guk eta guretzako egitiko esperientzia polita izan daitekeela iruditzen zaigulako, Elgoibarko emakume gazteak asanblada bat eratzera animatu nahi genituen.

Helburu honekin, 93ko ekainaren 16an Guillermo Garate Kultur arduradunari kultur etxe-ko batzar aretoa eskatu genion lehenengo asanblada izango zena burutzeko.

Bere erantzun demokratikoa ezezkoa izan da, talde hau konstituitu gabe dagoela aitzakitatzat jarritz. Nola nahi du bada taldea konstituiturik egotea oraindik lehenengo batza-

rra egiteko aukerarik ez digunean ematen?

Bere jarrera salatu nahi dugu, eta era berean lehenengo bilera hau egiteko eskaerari ekingo diogu, jadanik udaletxean sartu dugun beste eskaera baten bitartez.

Elgoibarko neska talde bat

Ogasuntzako zinegotziari erantzuna

Prentsan Maria Isabel Larrañaga, Ogasuntzako zinegotziak bidalitako ohar bat argitaratu zen, zeinek drogomenpekotasunaren arloan burutako ekintzak azaltzen zituen eta era berean, programa serio eta koordinatuak egiteko prest daudela aldarrikatzen zuen.

Errotatxok oharra eta oharraren igorlearen hipokresia salatu nahi ditu, izan ere, gure aldetik betidanik izan da, epe

motz, ertain eta luzerako prebentzio programa bat burutzeko ahalegina eta ahalegin honek atzerape-na besterik ez du izan erantzun gisa. Ez kolaboratzeaz gain, azkenaldian Errotatxok eraturako guztiari ez zaio eragozpena besterik ezarri.

Argi utzi nahi dugu elkarren arteko bileretan, gure programak baino ez zirela mahaigaineratzen, beraz, batzordeko lehen-dakari andreak ezer programaturik duenik ere zalantzan jartzen dugu. Begi bistan dago Errotatxoren lana; non dago, ordea, batzorde horrek egin duena?

Eusko Jaurlaritzara dirulaguntzak eskuratu ahal izateko Errotatxok bidalitako 8 programatik bat bakarrik izan da aurkeztua. Hau al da kolaboratzeko prest egotea? Beraiek eman behar ez duten dirulaguntza ere, ukatu behar al digute?

Gure lana eragozten dituzten jarrera hauek salatu nahi ditugu eta garbi esan, ez dugula prentsa polemiketan sartu nahi, aipatu programa hori eztabaidatuko den mahai inguru batean, prest leudekeen sektore guztiekin hitz egin baizik.

Hau da bidea, erraza eta zehatza, horretarako borondatea baldin badago behinik behin.

Errotatxo

Ez ahaztu, eskutitzak, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan beharko dutela. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inizialak soilik agertuko dira. Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitakoentzat.

ALTZARIAK-DEKORAZIOA

Triando

Santa Ana, 4 eta 6
Tel: 74 12 34
ELGOIBAR

**Ekaina
eta
uztaileko**

ESKEINTZA

PIKOLIN koltxoia eta somierra erosterakoan **opari bat** eta **Almeriako kostara** bidaiatzeko aukera izango duzu.



AZKUE

Aste honetako erretratua **Lidia Iriartek** lagatakoa da.

Lidiak esan digunez 1956. urtean Urtiako txoko batean "harrapatu" zituen Julian Azkuek.

Ekaineko lehen eguzki printzekin batera Urtia, San Roke eta gainontzeko zelaiak zapaltzera joateko ohitura ez omen da berria. Hondartzara edo mendira joateko gogorik/astirik ez zutenek ederki aprobetxatzen zituzten Elgoibarko inguruetako zelaiak eguzkia hartu eta arratsaldea pasatzeko.

Toalla, josteko behar zena, bainujantzia eta berbera-rako gogoia nahikoak izaten omen ziren arratsalde pare-

gabeak pasatzeko. Eguraldi ona egiten zuenean zortzi-bederatzi lagun elkartzen omen ziren Urtiako txoko honetan.

Lidiaren esanetan Urtiak ez omen zuen Debako hondartzaren inbidiarik, orain nola dagoen ikusten duenean pena handia ematen diola aitortu badigu ere.

Beraiek ez omen zuten erretraturik atera nahi baina Julianek egundokoa izango zela eta ezetz esateko aukerarik gabe atera zien.

Zeintzuk diren belar gaineko lora hauek? (Ezkerretik eskumara) **Angelita Lizundia, Lidia Iriarte** eta **Julia Iriarte**.

Gabi jatetxea

Nefarroa enparantza ☎ 74 12 30 - 74 37 22



ALUVITEL^{SL}
**ALUMINIO AROZTEGIA
 ETA PVC**

- Aluminiozko leihoak
2 koloretan
- "Rotura de puente
termico" leihoak
- Bainu manparak

Santa Ana 3 Tel: 74 36 34

Hizkuntzak atzerrian

Hizkuntza bat jatorrizko herrian ikastea ezinbesteko baldintza bihurtu da hain zail bilakatu den lan mundurako. Haurrek eta gazteek, uda sasoi aprobeztatzen dute atzerrian ikastaroren bat egiteko. Baina ikastaro hauek ez daude beti denon poltsikoaren neurrira eginda. Horregatik, dirurik ezean, au-pair deritzon formula, alternatiba itxaropentsu bihurtu da askorentzat.

Hizkuntza bat ikasteko erraztasuna, faktore garrantzitsua da baina are gehiago pertsonak nortasun irekia izatea.

Atzerriko hizkuntzak menperatzeko beharra dela eta, gero eta gehiago, haurrak txiki-txikitatik hasten dira hizkuntzak ikasten. 14-15 urte bitartean hasten dira haurrak atzerrira ateratzen bartako hizkuntza praktikatzeko. Ez da beharrezkoa, baina bai komenigarria, haurrak hizkuntzaren oinarriko ezagutzak izan ditzan.

Uda sasoiaren joaten dira, gehienetan organizatutako ikastaroak burutzeraz. Familia bati ordaindu eta bertan egiten dute bizitza. Jatorrizko herrialdeko neska-mutil taldearekin ere harreman estua izaten dute eta batzutan atzerriko hizkuntza baztertu eta



Ingelesa ikastea nahi duten gehienek Ingalterra aukeratzen dute.

ama hizkuntzan aritzen dira atzerriko egonaldi guztian zehar.

Moda kontua ere bada udako ikastaroena. Eskaria handia denez, ikastaro eskaintza ere zabala da eta honetan, beste gauza askotan bezala, eskasak diren ikastaro asko daude. Arraroa da 200.000 pezetatik beherako ganorazko ikastaro bat topatzea.

Beste askok, ordea, hizkuntzak ikasteko modu merkeago bat aukeratzen du; au-pair deritzona hain zuzen. Pertsona heldutxoagoak izaten dira eta denboraldi luzeagoa pasatzera joaten dira. Familia batean bizitzearen ordez, etxeko lanak egin eta egunean hiru orduz gutxienez haurrak zaintzen dituzte. Horren truke, 3.000 pezetako "soldata" jasotzen dituzte astero. 18 eta 25 urte bitarteko gazteak, Alemanian 30

urte artekoak, ia beti neskak izaten dira au-pair-ak.

Au-pair-aren formula, atzerriko hizkuntzaren lau berba ikasi eta eta bigarren urrats bat hasteko bidea izan ohi da. Asko, lagunak egin ondoren elkarrekin bizi izatera joaten dira, hoteletan eta tabernetan lan egiten dutelarik.

Mutilek, zailago izaten dituzte gauzak eta gehienak lan-kanpoetara joaten dira edota pisuetan bizi eta lan egiten dute. Dena den, atzerriko hizkuntza ikasteko guztiz garrantzitsua da pertsonak izakera irekia eta gauza berriak esperimentatzeko gogoia izatea. Jarraian, atzerriko hizkuntzak ikasten jardun duten lau elgoibartarren hitzak jaso ditugu. Bakoitzak bere ikuspuntutik, esperientzia hori nola bizi izan duen kontatuko du.

Au-pair-aren formula, atzerriko hizkuntzaren lau berba ikasi eta bigarren urrats bat hasteko bidea izan ohi da.



Maria Rezola
22 urte

"Ni alemana ikastera eta esperientzia berri bat bizitzera jun nintzan. Sei hilabete pasatu nitxun Colonialn, au-pair bezela. Goizian klasera jun eta arratsaldian nere lana sei urteko alaba zaintzia zan. Etxeko lanak itxeko beste

pertsona bat zeukaten.

Gogorrena familixa batetan integratzia eta beren erritmora ibiltzia itxen da. Ez nitxun aleman asko ezagutu. Gehixen ni bezela au-pair zeuden neskekin ibiltzen nintzan.

Kuriosuena tabernen funtzionamendua da. Han ez dira hemen bezela jendez gainezka egoten. Colonialn taberna bat betetzen danian atia itxi eta zaindari bat jartzen dabe. Barrura sartzeko, jendea irten arte itxoin behar da.

Neretzat esperientzia oso positiboa izan da. Hizkuntza bat ikasteko erarik onena hizkuntza horretan bizitzia da. Au pair bezela, hoteletan lan eginez edo eskolatan, bakoitzak ahal daban bezela baina herrialde horietara bidaiatuz".

Josu Mugika
35 urte



"Lanak behartuta ikasi ditut hizkuntzak. Frantsesa eta italianoa hitz egiten ditut eta ingelesa sakontzen ari naiz. Belgikan dantza eskolan hasi nintzeanean jendeak, munduko alde ezberdinetakoak, frantsesa egiten zuen batez

ere. Hasieran gogoratzen naiz, suekoekin batez ere oso gaizki ibiltzen ginala. Orduan konturatzen zera zer dan hizkuntza bat jakitia. Azkenean hizkuntza sartzen zaizu baina norberak ere egin behar du zerbait, metodoren batekin edo zerbait irakurri... Lehen urratsak eman eta gero berehala sartzen zaizu. Hizkuntza menperatzea, ordea, zaila da. Askotan azaleko gauzetan geratzen zera hitzen aberastasunik ez daukazulako. Lanzatu egin behar zara hizkuntza ikasteko.

Gero Italian egon nintzan. Italianoa ez zen hain gogorra izan zuztar latinoak daukalako. Italian gustorago egon naiz. Gugandik hurbilago daude, klima beroagoa da... Denera, 12 urte pasa ditut atzerrian. Esperientzia positiboa izan da, oso aberasgarria".



Ana Blanca Lasa
23 urte

"13 hilabete pasatu ditut EEBBetan. Lau etxetan egon naiz: I. elengo, Massachusetts-en, gero New Jersey-n, ondoren New York aldean eta azkenian Meriland-en.

Hemen aspertuta nauan eta au-pair bezela EEBBetara jun zeinkela

enterau nintzan eta Ingalaterran baino hobeto zauala. Egixa da. Irlandan egonda nago eta askoz hobeto dago. Kontrato bat egiten dute eta erreklamatzeko koordinadore bat dago. 45 ordu egiten dira astian zehar eta kotxea lagatzen dizute. Ni nahiko ondo egon naiz baina gaizki zeuden asko ere ezagutu ditut.

Jendiakin erlazionatzia zaila da. Jende gaztia unibersidadian dago eta mobitu egin behar zera. Ni denbora asko atzera eta aurrera ibiltzen nintzan, hirian... Hemengo jenderik ez dot topatu baina sudamerikanuak asko. Hauekin egoten bazera ez dozu inglesik ikasten. Nik ingles asko ikasi dot erderaz berba egiten ez zuten askokin egon naizelako. Orain berriro nixe Washington-era "International business" egitera".

Ainhoa Astigarraga
15 urte



"12 urterekin EEBBetan, Los Angeles inguruko herri txiki batean egon nintzen familia batekin bizitzen uztailean zehar. Familia oso jatorra zen, ni oso ondo konpontzen nintzen beraiekin. Betidanik gustatu izan zait iparramerikarren bizimodua.

Familian seme-alaba asko ziren eta oso ondo integratu nintzen. Beti edozein tokitara eramateko prest zeuden eta orokorrean jendea Ingalaterran baino atseginagoa da.

Urtebete beranduago Ascot-era, Ingalaterrara, joan nintzen. Orduan, konparatzeko aukera izan nuen eta EEBBetako esperientzia askoz hobea izan zela ikusi nuen. Ez dakit, Ingalaterrako familia itxiagoa zen, emakumea dibortziaturik zegoen, eta hemengo jendeagatik ez balitz izan gaizki pasatu izango nukeen. Norabaitera joatekotan EEBBetara joango nintzateke berriro. Oso aspergarriak dira ingelesak. Egia esan, segun eta zein familia tokatzen zaizun esperientzia oso ezberdina izan daiteke".

Bidaiatzeko, autobusa ala trenak?

Bietako bat aukeratu behar izanez gero, egin behar dudan bidai luzea ala motza den begiratuko nuke.



Eibarrera joateko nahiago dut autobusa, aukera gehiago dagoelako, ordu erditik ordu erdira eta gaueko hamarrak arte. Trenak, berriz, egun guztian 4 besterik ez.

Elgoibartik Bilbo eta Donostiara joateko, autobusak berrogei minutu besterik ez du egiten, autopistaz bait doa.

Trenak ordea, ordu bete ta laurden pasatxo.

Autobusean zeure jarlekua ziurtatuta daukazu. Trenak hartzea erabakitzen baduzu, ziur egon zaitez, Zarautzeraino gutxienez zutik joateko arriskuan jartzaren zarea.

Bidai luzeagotan behar bada, bertan mugitzeko aukera ematen dizu trenak, baina autobusean joanez gero, bidai erdian, jeitsi eta zer-

bait jan edo edateko aukera izango duzu.

Aukerak aukeran, elgoibartarrok behintzat, egunean lau tren besterik ez dugu Bilbora zein Donostiara. Beraz, autobusa hartu behar.

Udan, trenak Eibartik bete beterik datoz eta elgoibartarrok sarritan sartu ezinda gelditu behar izaten gara.

Bada beste detaile bat kontutan izan behar dena: Trenak merkeagoa da. Jubilatuko gainera dohan daukagu Bilbotik Donostiara bitartean.

Hala eta guztiz nik autobusa nahiago dut azkarragoa delako, aukera gehiago dagoelako eta eroso edo komodoagoa egiten zaidalako.

Itziar Konde



Neri trenean ibiltzea asko gustatzen zait. Bidaiatzen duzunean, normalez abrigo bat duzu, poltsaren bat edo beste, eta beraz, tokia behar izaten duzu horiek denak uzteko; eta alderdi honetatik trenak bere abantailak eskeintzen dizkizu.

Sarritan trenak iristeko zain egon behar izaten duzu, eta honetarako gela bereziak egoten dira estazioetan. Gela hauetan jarlekuak egoten dira eta aterpea ere bai.

Baina trenak ez ditu gauza onak bakarrik, baditu bere alderdi negatiboak ere. Adibidez, aberiarik edo sortuz gero, ezin zara fidatu garaiz iritsiko zaren ala ez. Baina, dena den, gaur egungo trenek duten puntualitatea ez da lehenagokoen bezalakoa. Gaur egun garaiz ibiltzen dira.

Trenen eskasia ere aipatu nahi nuke artikuluan honetan. Gure herritik ez dira tren asko pasatzen ez Bilborako ez eta Donostiarako ere. Are

gehiago, batzuk pasatu arren ez dira gelditu ere egiten, beraz tren gutxi pasa eta gainera batzuk gelditu ez, egoera ez da oso ona.

Artikulu hau aprobetxatu nahi nuke Bilbo-Donostia ibilbidean, Eibar Deba tren gutxi duen zatia dela salatzen. Pena bat da.

Bukatzeke zera esan nahi nuke: Bai, niri trenean ibiltzea gustatzen zait, gauza onak ditu, beste batzuk hobetzen ari dira eta, nork jakin, laster askoz hobeak izan daitezkeelakoan nago.

Miren Arrieta

ETA ZURE USTEAZ?

Bidaiatzeko, autobusa ala trena?



Manuel Rey
75 urte, jubilatua

Nik nahiago dut trena. Ez dakit, jende gehiago joaten da, neska gehiago ere bai. Gainera, jubilatuek ez dugu trena ordaindu beharrik.



Concha Azkue
72 urte, jubilatua

Etxeko automobilean ibiltzen naiz. Biharrian egonda, autobusa. Trena ere oso ondo dao. Behin etorri nintzan Donostiatik eta oso gustora.



Encarnación Paredes
60 urte, etxekoandrea

Nik autobusa hartzen dut normalean. Tren geltokia etxetik urrun gelditzen zait. Bilbora, Donostiara edo Andaluziara noanean beti autobusa. Erosoagoa da.



Maria Armendia
74 urte, jubilatua

Bixetan ibiltzen naiz ni eta bixetan gustora. Gutxi ertetzen naiz etxetik baina bentajia ikusten diot autuari lehenago joaten zeralako. Ostan-tzian trenian ere oso gustora.



Ramon Uriguen
64 urte, jubilatua

Guk beti trena hartzen dogu. Ez dogu pagatzen eta autobusagatik pagau bihar dogunarekin jubila-tuetan bazkaltzen dogu. Autobusa, prezisua bada hartzen dogu.



Paulino Otero
68 urte, jubilatua

Nik nahiago dut autobusa. erosoagoa da eta bizkorra-go. Distantzia motzetarako autobusa egokiena baina luzeetarako trena aprosagoa iruditzen zait.

SAN PEDRO JATETXEA

**JAIK
ONDO
PASATU!**



San Pedro Auzoa
Tel.: 74 00 10

ecenarro
Barruko erropak
Umeentzako erropak
San Frantzisko 10, Tel.: 74 26 19

PUBLIZITATEA
74 41 12

ELGOIBARKO IEE/REM ETA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA

***Matrikula epea zabalik dago
Uztailaren 1etik 9ra - Irailean 7tik 13ra***




- ▶ **REM 1. ZIKLOA**
- ▶ **ADMINISTRAZIO ETA GESTIOAREN BATXILERGOA (BAG)**
- ▶ **BATXILLERGO TEKNIKO INDUSTRIALA (BTI)**
- ▶ **LH II AUTOMOZIOA**
- ▶ **M3 ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA GESTIOA**
- ▶ **M2 BARNE KOMERTZIOA**

***Lanbide Eskolak ikaslegoa zoriondu nahi
du Selektibitatean lortutako emaitza
ezinobeengatik.
Zorionak!!***



Hona hemen Txankakua merkatari eta zerbitzari elkarteak egindako Udaberri-Uda kanpainaren zozketan sarituak atera direnak. Ezkerretik eskumara, Txankakuako hiru ordezkariekin batera, 35.000 pezetako eros-txekeak eskutan dituztelarik: Eduardo Saez, bere alaba Susanaren ordezkaria jaso zuena, Agurtzane Bikuña, Juan Ignacio Moya eta Jesus Gauna. Bostgarren saritua, Ana Carrascosa, ez zen sari banaketan izan. Zortedunek Txankakua elkarte osatzen duten edozein dendatan gastatu ahal izango dute 35.000 pezetako eros-txekea. Ondo gastatu eta Zorionak!



Hauexek dira euri eta haizetik babesteko jarri dituzten markesina berriak. Herriko hiru autobus geltokitan jarri dituzte. Hauetariko bi, Sigma auzoan jarri dira, bata Eibarrera norabidean eta bestea parean. Hirugarren markesina, Maalako geltokian jarri da. Udalak 5 markesina berri eskatu zizkion Foru Aldundiari baina Aldundiak hiru bakarrik eman ditu. Autobus geltokietan markesinak jartzea hiru milioi pezeta kostatuko dira. Hobekuntzak Aldundiaren autobus geltokien egokitze planaren barruan egin dira.

Mendaroko jendeaurreko IV. Margo Sariketa

Mendaroko udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz IV. margo sariketa antolatu du. Lanak lehiaketa egunean bertan, goizeko 9etatik 10etara bitartean Mendaroko Kultur Etxean (Azpilgoeta kalea) aurkeztuko dira.

Lan onenak 70.000 pezetako saria jasoko du eta bigarrenak 40.000 pezetako saria.

Herriko margo onenari 25.000 pezetako saria emango zaio eta 14 urtetik beherako onenari, 10.000 pezetako aipamen saria.

Beriainera irteera antolatu du Morkaiko

Igande honetan Morkaiko Mendizale Elkartekoak Nafarroarantz abiatuko dira, gutxi gora behera 6 ordu izango dituen travesia egitera.

Lehendabizi Unanua herritik Berain puntara igoko dira. Eguraldi onarekin Pirineoak, Aizkorri, Anboto, Aralar, Urbasa eta beste zenbait mendi ikusteko aukera izango dute. Beriain mendia egin ondoren Lizarragara abiatuko dira. Irteera Foruen Plazatik izango da goizeko 8,30etan.

Hauteskunde eroldaren zuzenketak

1993. urteari dagokion hauteskunde errola edo zentsua Udaletxeko idazkaritza bulegoetan eskuragai dago beharrezkoak diren zuzenketak egiteko. Hauteskunde eroldaren zuzenketa eskaerak egiteko azken eguna uztailaren 7a izango da.

Pasa den ekainaren 26an, argazkiko kuadrila hau goizean goiz Plaza handitik atera zen Ondarruko itzulia egiteko asmoz. Duela hiru urte berpiztu zuen kuadrila honek Ondarruko itzulia, urte askotan egin gabe egon ondoren. Aspaldi batean, Gure-Bide txirringulari elkartekoek izaten ziren Ondarruko itzulia iraurarazteaz arduratzen zirenak.

Aurten behintzat, kuadrila honek hirugarren aldiz burutu du ibilbidea eta datorren urtean ere horrela izango da seguraski.



Alaitz Vives Urbieta da argazkiko mendaroar gazte hau. Alaitzek duela gutxi "Urruzuno Literatur Lehiaketan" lehen saria jaso zuen "Aretoaren izkin batean" izeneko lanagatik. Alaitzek "A" kategoriako, 3.BBBko eta UBiko ikasleen mailako lehen saria irabazi zuen. Aurtengo urtarrilean, 16 urteko mendaroar honek Elgoibarko Izarra idaz-lehiaketan lehen saria jaso zuen ipuinen arloan. Gure aldetik, zorion beroak Alaitzi!

UZTAILAK 3 UZTAILAK 10 UZTAILAK 16

Ron Bacardi Jala
Sorpresak eta opariak

Whisky JB jala

Sastre eguna
Striptease femeninoa


GUASS





Zokoan eta *Octubre Negro* taldeen rock kontzertuarekin ordezkatu behar izan zuten altzolarrek San Juanetako ohizko su espektakularren berotasuna, iaz bezala aurten ere sutan erretzeko prestatu zutena urak erman baitzuen. Halere, astebukaera osoan zehar jende mordoska, Elgoibartik eta Mendarotik batez ere, hurbildu zen Altzolara. Sasoi batean adineko jenderik egon ez arren, giro jator eta alaian pasa zituzten jaiak altzolarrek.

Altzolako jaietako San Pedro bailarakoek hartu diete errelebua. Ekainaren 29an, jaien hasiera iragartzeko, txupinazoa bota zuten auzotarrek San Pedro eliza aurretik. Argazkian agertzen den bezala, atentzioa behintzat erakarri zuen txafliku botatzeak. Pena bat da haurren sustu aurpegia ezin ikustea txafliquia gorantz joan zenean!



JOSU



JOSU


Mezaren ostean, auzotarrek prozesioan atera zuten beraien patroia. Elizako betebeharren ondoren auzotarren bazkaria izan zuten San Pedrokoek. *Olloki* eta *Ziolar* trikitrilarien doinuen laguntzaz dantza ugari egin zituztela esan digute auzotarrek. Astebukaera honetan, jaiak bere horretan jarraituko San Pedron. Elgoibartarrok beraz, izango dugu astebukaeran non dibertitu.

L
 E
 H
 I
 A
 K
 E
 T
 A



Dolores Molina izan da ekaineko lehiaketako irabazlea. Egindako galderari zuzen erantzun ondoren, ARTEGI dendan ekainaren 30ean egindako zozketan berak izan zuen zorte gehien. Argazkian, Dolores *Bauknecht* mikroondasarekin eta ARTEGIko ordezkariarekin.

ARTEGI



Uztaileko SARIA
SAMSUNG
TELEBISTA

UZTAILEKO GALDERA: Uda garaian bete betean bagaude ere, ez dugu ahaztu behar euriak sustu bat baino gehiago eman dizkigula urte sasoi honetan. Elgoibarren ezagutu ditugun azken bi uholdeak uztailean eta abuztuan izan ziren, hain zuzen ere. Ba al dakizu zein urtetan?

Erantzuna bidaltzeko azken eguna uztailaren 20a izango da. Eta zozketa uztailaren 21ean egingo da ARTEGI dendan. Galdera astero errepikatuko dugu.

ERANTZUNA.....eta

IZEN ABIZENAK.....

HELBIDEA.....TFNOA.....

BIDALI ERANTZUNAK: elgoiBARREN. Nafarroa enparantza 2 . Elgoibar.

Elgoibartik Venezuelara

Marta Etxabek 12 urte bete berri zituen Elgoibar utzi eta Venezuelara aldegin zuenean. 26 urte dituen neska honek hitzekin musika egiten du, venezuelarrek

hitzegitean duten azentu berezi horrekin. Halere, Venezuelara euskalduna izatearen nortasuna eraman zuela esatean, ahoa betetzen zaio, eta begiak bustitzen.

- Erraza egin zitzaizun bertako bizitzara moldatzea?

- Bai. Jende askok emigratzen du mundu guztitik Venezuelara eta ohituta daude. Oso irekiak dira. Gainera ni orduan ume bat nintzen ez nintzen konturatzen zer nolako aldaketa zen guzti hura niretzat, gauza natural bat bezala hartu nuen.

- Zer izan zen zailena?

- Elgoibarren bizi nintzenean ikastolatik urten eta egun osoa kalean ematen nuen, jolasean. Venezuelan Valencia hirian bizi gara, hura oso handia da, arriskutsua, eta ez dago hemengo askatasun hori.

- Ezberdintasunik?

- Nahiko antzerakoak dira hura eta Euskal Herria. Halere lehengo egunean lagun batekin kalean nengoela Elgoibarren, gauza kurioso bat ikusi nuen. Kotxe bat doble filan aparkatua zegoenez beste kotxe bat ezin irtenda zegoen. Gaizki aparkatua zegoen kotxeak leihoa irekita eta giltzak jarrita zeuzkan. Nere laguna kotxera sartu eta trabatik kendu zuen. Ni harrিতuta gelditu nintzen, Venezuelan kotxetik jeitsi eta, automatikoki, alarma jartzen duzu, ia ia bedeinkatu



“Hemen Venezuelarra bezala aurkezten naute, han euskaldun bezala”.

beharra dago itzultzean kotxea utzitako lekuan aurkitu nahi baduzu.

- Ez dago beraz seguritate handirik?

- Ez, arazo handiak daude. Caracasen adibidez, irten aurretik ondo pentsatu behar da nora zoazen, ea inguru horietan kotxe zaindariak dauden eta abar... Gauetan, berriz, inori ez zaio okurritzen kalean lasai lasai paseo bat ematea.

- Zer eraman zenuen Euskal Herritik?

- Nortasun euskalduna.

- Eta zer aurkitu duzu

bueltatzean?

- Ez zara ez euskaldun ez eta Venezuelar sentitzen. Hemen Venezuelarra bezala aurkezten naute, han euskaldun bezala. Jendeak hala ikusten zaitu eta zeuk ere barruan daramazu, herri bakoitzeko gauza on eta txarrak dituzu. Ozeanoaren erdian egongo banintz bezala, beharbada bizitza tokatu zaidanak eman didan ikuspuntu zabalagoaz.

- Ez duzu sekula Euskal Herrira itzultzea pentsatu?

- Duela hiru urte erabakia

neukan, baina Golkoko Gerra hasi zen eta azkenean nire asmo guztiak bertan behera geratu ziren. Bestalde, hau ez dut asko ezagutzen, birritan etorri naiz eta oporretan; egunero bizitza nolakoa den ez dakit. Hor dago, gainera, gaur egungo langabezia itzela, beraz mementuz...

- Kontaiguzu Venezuelako ohitura bitxiren bat.

- Han, neska batek 15 urte betetzen dituen izugarritzko festa batekin ospatzen da. “Presentación en sociedad” delakoa izan ohi da. Senide eta lagunak gonbitatzen dira eta neskek ohorezko vals-a dantzatzen du aita, osaba edo mutil-lagunarekin.

- Zer du Venezuelak opor lasai batzuk pasatzeko?

- Caribbean egoteak berez badu nahikoa erakargarritasun. Horretaz gain, desertua ere badago, urte osoan elurrez estaliak dauden mendiak, oihan eta basoak, gogoratu Amazonas Venezuela aldera ere hedatzen dela, izugarritzko urjauzi inpresionanteak daude... eta jendea zoragarria da, oso irekia. Gainera, bizitza maila bajua denez, zuentzat oso merkea da.

Jasone osoro

Pedro Mari Perez

Pintorea



- **Zenbat urte pintore bezala?**
- Hamazazpi.
- **Nola eta zergatik sartu zinen lan honetan?** - Eskola profesional batean egin nituen ikasketak eta entretenigarria eta polita zela iruditu zitzaidan. Horrela, aurrera ekin nion.
- **Uda honetan, lan asko daukazu?** - Beti bezala, abuztuaren lehenengo hamabostaldirarte egingo dugu lan. Negualdian aste bete hartzea espero dot.
- **Dekoraterakoan, gustu ona al daukagu elgoibartarrok?**
- Bai, baina oso tradizionala.
- **Esaera zahar bat?** - Ez utzi biharko, gaur egin dezakezuna.
- **Zer dauka mus-ak tuteak ez daukanik?** - Mus-a, balorezko joko bat da eta tutea, aldiz, mentala da. Gezurzaleena da mus-a eta tutea zentzudunena.
- **Izatekotan, zure gustuak, norengandik daude hurbilago? Antonio López ala Dalírengandik?** - Antonio López-en pintura errealistatik hurbilago nago.
- **Desio bat.** - Uda luzea izan dadila. Ez dezala euririk egin eta bai eguzki asko. Eguzkitsuak diren egunak, dibertigarriagoak dira.
- **Zer deritsozu emakumeak aurpegia eta ilea pintatzeari?**
- Uste dot norberak bere "fatxada" zaindu behar duela.
- **Ze eraikuntza edo edifizio famatu gustatuko litzaizuke pintatzea?** - "Capilla Sixtina".
- **Siesta zalea?** - Ez, "loerrea" ematen dit.
- **Ze koloretan pintatuko zenituzke Elgoibarko etxeen fatxadak?** - Denak igual eta tonu suabeetan.
- **Pertsonaia eta garai historiko bat?** - Ocaña pintorea eta garaia, gaur egun, azken hamarkada hauek.
- **Loterian 160 milioi tokatuko balitzaizkizu?** - Gauzak ikasi eta lasaiago biziko nintzateke.
- **Kolore hotzak ala beroak?** - Beroak, atseginagoak dira eta gehiago sujeritzen dute.

Miriam Aldazabal

BERTSOTAN

AUTOBUSA ALA TRENA?

Doinua: Munduko ilunabarra

Egin galdera zuzena
autobusa ala tren
eskatutzen dut nik baimena
abestutzeko hurrena
pentsatzen hasi eta konturatu naiz
autobusa karuena
abiadura bizkor batean
mareatzean guk pena
kamioi, kotxe, motor, txirrina
txoferraren eromena
trafiko asko, kola handiak
beharrezkoa kemena
tren txu, txu, txu bere bidetik
horixe dugu onena. (Bis)

Josu Guenetxea

Iraegui

ERROTULAZIOA

☎ 74 39 52

San Antolin

74 37 06

Jose Ignacio Ullacia Echeverria

AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1

Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30

Tel: 74 04 68

UDA BERRI
ELGOIBAR

“Lagunak” pilota txapelketa

Elgoibarko “Lagunak” Pilota Eskolak antolatutako izen bereko txapelketaren semifinalak jokatu dira aste honetan. Benjamin, alebin eta infantil kategoriako semifinaletako irabazleek datorren astean jokatu dute finala. Infantilen kategorian, Igor Casado eta Iker Martinezek finaleko partidua jokatu dute.

“Lagunak” pilota txapelketa duela bi hilabete hasi zen. Orain arte 160 partidutik gora jokatu dituzte.

Mintxetako tribunen aukeraketa

Elgoibar K.E.ko zuzendaritzak Mintxetako tribunen argazki bat jarri du Gorostiza tabernan datorren denboraldirako, Haundiren bazkideek nahi dituzten jarlekuak aukera ditzaten. Tribunek 1.100 pertsonarentzako kabida dute, Elgoibarko K.E.ak dituen bazkideak baino gehiago. Horregatik, jarlekuak aukeratzekoan, istilurik sortuko ez den ustea dute K.E.ko arduradunek.

Lehen aldiz izena ematen duten bazkideek, beteroenen eskubide berdinak izango dituzte jarlekua aukeratzeko orduan. Zuzendaritzak, bere aldetik, 74 jarleku hartu ditu arduradunentzat.



Gorka Garate

Etorkizun handiko judoka gaztea

-Bizkaiko Sanbo txapelketan urrezko domina atera zenuen. Zenbat domina irabazi dituzu orain arte? Zortzi bat edo. Lehenengoa sei urte naukian. Bost bat urrezko eta besteak zilarrezkoak eta brontzezkoak.

-Zein domina izan da zuretzat garrantzitsuenak? Ba... internazionala.

-Zer ezberdintasun dago Sanbo eta Judoaren artean? Sanbo, praka motzetan eta zapatilekin egin bihar da eta beste teknika bat da. Judoa baino errezagoa da. Neri judoa gehiago gustatzen zait.

-Txapelketetan zer da garrantzitsua, irabaztea ala jokatzea? -Konpetitza. Irabaztia ere garrantzitsua da baina jendia eza gutzia ondo dago.

-Ondo pasatzen al duzu konpetitzera zoazenean? Tentsioa eukitzen det, baina burruka egiterakuan kentzen zaizkizu nerbixo guztiak.

-Ikasketak eta judoa ondo konpajinatzen al dituzu? Bai. Batzutan kentzen dit denbora baina gutxitan. Batzutan ez naiz judora joaten ikasi egin behar dudalako.

-Udan judoarekin jarraitu behar duzu? Ez, amaitu det. Orain



oporrak eta berriro irailean hasiko gera.

-Ze ilusio daukazu judoan? Gipuzkoako txapelketa irabaztia eta ahal bada Euskadikoa. Eta zinturoi beltza ateratzia. Orain urdin-marroia daukat.

-Judoa erabili duzu borrokaren batean? Bai, baten bai. Lagun bat hasi zan tontokerixak egiten, bueno, hasi ginan burruketan eta ni baino handiagoa zan.

-Eta irabazi egin al zenion? Bai.

-Klasekoek beldurra izango dizue, ez? Keba, ni baino altuagoak dira. Bueno, batzuk bai.

-Judoaz gain zein beste kirol egin duzu? Motorrian ibiltzen naiz eta bizikletan ere bai.

- Adina: 13.
- Bideo jokuak ala komikiak? Bat ere ez.
- Udako postre gustokoena? Mantekaua.
- Udalekuetara al zoaz? Ez. Gurasoekin Fiterora.
- Nobixarik? Ez. Gustoko neska bat.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Rosario 34, 1 ez. Elgoibar
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

INTERIORES
CLARA ARRILLAGA
Dekoratuzaile-Proiektatzailea
-PROIEKTUAK-ERREFORMAK
-LOKAL KOMERTZIALAK
-ETXEBIZITZAK-ENPRESAK
Tel:74 40 55-74 40 19. Errosario 15

PUB
JANEI
elgoibar

ORTOPEDIA
ARRIETA
Bidebarrieta 4, Eibar
Tel. 11 84 10

Udako kirol kanpainak erantzun ezin hobeia izan du jendearen aldetik

Uztailaren


lehen egunak baino ez dira pasa eta dagoeneko, Udal Kirol Zerbitzuak udarako antolatu dituen kirol iharduera gehiengatik plaza guztiak bete egin dira. Aurtengo kanpainan ia 500 pertsona arituko da kirolen bat egiten. Hauetatik, bi heren haurrak dira eta 100 pertsona inguru, berriz, helduak.

Aurtengo ikastaroetako plazak mugatuak izan dira eta arrazoi honengatik jende askok ez du parte hartzerik izan. Udal Kirol Teknikariaren esanetan, helburua kalitatea eskaintzea izan da, masifikazioa ekidituz. Urtero bezala, kirol iharduera arrakastatsuen tenisa izan da. Guztira 140 pertsona apuntatu dira eta asko kanpoan geratu dira.

Haurrentzako gimnasia, eskalada, Wind Surf, piraguismo eta mountain bike ihardueretan ez da tokirik geratu eta helduen mailan ere, arrakasta handia izan dute kirol horiek.

Patinak, haur zein helduetan oso gustukoak izan dira. Haurrentzako ikastaroan 30 kideko taldea osatu da eta helduentzakoan 25 pertsonako neska taldea osatu da. Patinak modan dagoen kirola omen da eta gure herrian beste herri batzuetan baino zaletu gehiago dago.

Aste bukaerako irte-naldiei dagokienean, "Urbasa Zaldiz" eta "Kañoi jetsiera" beteta daude. Hori dela eta Udal Kirol Zerbitzuak Urbasara beste txango bat antolatu du uztailaren 23, 24 eta 25erako.



↳ Patinatzea modan omen dago.

ELGOIBARKO BATXILLER INSTITUTUA



Matrikulazio epea zabalik dago:

Uztailaren 1etik 9a bitartean

Ordutegia: 9 - 2,30

San Roke 11 Tel. 74 02 67

Udal txistulari taldea: mendeetako tradizioa

Elgoibarko Udal txistulari taldearen jatorria topatzeko, mendeetan atzera egin beharko litzateke. Betidaniko tradizioa da txistulari edo danbolinarena. Musikeskolaren sorreran, txistulari taldea bultzatzaileetariko bat izan zen. Areago, txistulari guztiak kontserbatorioan ikasketak egiten hasi ziren.



AZKUE

Txistuak inoiz baino kalitate handiago du gaur egun Elgoibarren.

Horren fruitu da gaur egun Udal txistulari taldea. Osatzen dutenatariko bik txistuko gorengo maila burutu dute. Gehiengoaren ustearen aurka, honoko garaia da txistularien garairik onena, izan ere, orain lortu baitu txistuak benetako kalitatea. Hori dela eta, Jose Inazio Sarasua, txistulari taldearen arduradunaren esanetan, Udal Txistulari Taldeak herrian baino kanpoan du entzute edo izen handiagoa. Udal Txistulari Taldekoa den Aintzane

Larreategik, musikeskolari txistu klaseak ematen ditu eta orain momentuan, 20 bat ari dira txistua ikasten.

Elgoibarren tradizio luzea du txistuak. Ansola anaiek, esaterako, 200 urtetan txistua iraunarazi zuten eta dagoeneko behin baino gehiagotan eskatu izan zaio Udalari, beste herri askotan bezala plaza bat txistularien ize-narekin jartzeko.

Udal Txistulari Taldea 13 kidek osatzen dute gaur egun eta urtean

zehar 112 ekintza burutu dituzte. Kopuru aldetik Haritz Dantza Taldearekin egiten dituzte ekintzak gehienak: 46 guztira. Izan ere, Udal Txistulariak Haritz Dantza Taldeko txistulari ofizialak dira. Ekintza gehiago ere burutzen dituzte: musikeskolako irakasle eta ikasleekin batera kontzertuak, herriko talde ezberdinekin agerraldiak...

Udal Txistulari Taldeak, Udalaren baitan dagoenez, Udalak izan ditza-keen eskaera guztiak bete

behar izaten ditu. Igandero, esaterako, goiz eresia jotzen dute eta ekintza ofizial askotan hartzen dute parte.

FITXA TEKNIKOA

Arduraduna:

Jose Inazio Sarasua

Kideak: 13

Ekintzak:

112 urtean

Entsaiuak: 80

Haritz Dantza

Taldearekin:

130 entsaiu



AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

Zerbitzu berriak martxan Kultur Etxean



Aste honetatik aurrera martxan daude Kultur Etxean ikusentzuteko hiruzpalau zerbitzu berri. Hobekuntza hauekin Kultur Etxea, ekipamendu aldetik, osatuta dagoela esan daiteke.

Berrikuntzen artean, beheko solairuko erakusgelan, *Compact* soinu katea jarri da, erakusketak dauden bitartean erabiltzeko. Helburua, giro epelagoa sortzea eta bisitariak, ikusten duena entzuten duenarekin erlazionatzea da.

Goiko solairuko hitzaldi gelan, hitzaldiak konplementatzeko eta

bideo emanaldietarako pantaila handiko bideo-proiektatzaile bat jarri dute. Bideoa erresoluzio handikoa denez, irudiak garbi ikusiko dira.

Bideo ekipamenduaz gain, diapositiba eta transparentziak ikusteko proiektore bat jarri da. Hitzaldiak eta mahainguruak egiteko ere, altabozak edo bozgorailuak eta bi mikrofono jarri dira.

Herriko taldeek, hitzaldi gela eta erakusgelako eskaerekin batera zerbitzu berri hauek erabiltzeko eskaera aurkeztu beharko dute Kultur Etxeko Kultura sailean.

Dinamarkatik etorritako bi orkestek musikaz bete zuten Herriko Antzokia

Astelehen arratsaldean ordu t'erdian inguru iraun zuen kontzertuaren lehen zatian Dinamarkako "Sjaellands" akordeoi orkestakoei 4 obra jo zituzten. Segidan "Allerod" musikeskolako orkestakoei hartu zuten erreleboa eta bukatzeko akordeoi orkestak egitarauan iragarritako lau obrak, eta egitarautik kanpo, beste bat jo zuten. Bi orkestek Peter Anders-en zuzendaritzapean jo zuten.

Akordeoi orkestarekin batera, Gorm Horvaldt-ek, Dinamarkako tronpetalari onenarikoa eta Orkestra Nazionalako kide denak, hiru tronpeta "solo" jo zituen.

Kontzertu honetara ez zen apenas jenderik urreratu. Elgoibartarrok ez dugu oraingo honetan behintzat musikarekiko zaletasun handirik erakutsi.



Dinamarkako orkestek kontzertu interesgarria eskaini zuten.

3 Larunbata

16,00 RADIESTESIA
IKASTAROA

Tokia: Kultur Etxea

16,00 GARE ELKARTEAREN
BILERA

Tokia: Kultur Extea

4 Igandea

8,30 BERIAIN-ERA MENDI
TRABESIA

Irteera tokia: Foruen Plaza
Antolatzailea: Morkaiko Mendi-
zale Elkartea

8 Osteguna

19,30 GESTORAK DEITUTAKO
BILERA

Gaia: Jaietako txosnaren turnoak
Tokia: Kultur Extea

SAN PEDROKO JAIAK

2, OSTIRALA

Gaueko 10etan Errekalde anaiak

Gaueko 12etan, Bola Jokuak

3, LARUNBATA

Gaueko 10etan, Idi demak

4, IGANDEA


Goizeko 10,30etan: Meza

11,30etan: Adari jokua

12etan: Esku pilota partidua

6etan: Herri kirolak

Aizkolariak, Harrijasotzaileak eta
txinga lehiaketa.



MAIATZEAN

JAIOTAKOAK

Lorea Lozano Tolentino

Ekainak 3

Julen Etxeberria Iturbe

Ekainak 7

Jose Andoni Garcia Dacosta

Ekainak 13

HILDAKOAK

Jesus Astigarraga Badiola

ekainak 9 (43 urte)

Josefina Guembe Villanueva

ekainak 9 (93 urte)

Rafael Cobos Nonezl

ekainak 20 (60urte)

EZKONDUAK

Juan Jose Gurrutxaga eta

Leire Barruetabeña

(Ekainak 5)

Asier Serrano Potela eta Patri-

cia Criado Martinez

(Ekainak 5)

Emilio Garrido Garcia eta

Lourdes Amuategi Gandiaga

(Ekainak 5)

Jesus Fermin Palacios Diez eta

Lourdes Lartain Jubete

(Ekainak 19)

Etxebizitzak

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m², kanpokaldera eta 3. pisua. Distribuitu gabe. Laguntzak jaso dezaketentzat aproposa. **Tel: 74 29 05**

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5 **74 35 09 - 74 31 66**

Lana

Etxeko lanak, haurkedo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak ... egiteko prest nago. Euskeraz bada- kit. **Ainhoa 74 16 89**

Udan klase partikularrak emateko prest nago OHOKo haurrei. Magisteritza titulua eta ingenieritza ikasketak ditut. **74 28 53 Alazne.**

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak. **74 41 94. Sanchez.**

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzio-entzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe. **74 25 35**

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet. **Iñaki: 74 34 01 - 74 17 60**

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu. **Deitu 74 04 13 telefonora.**

Salerosketak

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neskaren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel. etara.**

"Catusa" 4,20 m. tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta. **74 12 95 Pello.**

65 litroko ALDus Everest motxila eta piolet bat saltzen du. **74 25 63 Josu**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria. **Tel: 74 27 39**

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pta. **Alberto: 74 14 94**

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko. **Aitor: 74 22 74 Egun osoz.**

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntze-kin. Deitu lan orduetan. **94-6201918 ra (Gorka).**

Seat Panda bat saldu nahi nuke. SS 36 38 N **74 14 80 Javi**

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean). **74 08 79 Julian edo Maria Jesus**

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portalaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47** telefonoetara.

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea. **Tel: 74 28 77. Jose**

PISUA KONTROLATZEA ez da erreza, MANTENTZEA are gutxiago.


ERANTZUNA "Herbalife" NUTRIZIO PROGRAMA da .

Deitu 74 22 23

Belen Albizu. Santa Ana 10-4C



XAHEI BIDAIAK



TXEKIAR ERREPUBLIKA-ESLOBAKIA-BUDAPEST
93-8-1 / 93-8-15 75.000 pta.

KORSIKA
93-8-16 / 93-8-31 79.000 pta.

MAROKO (Atlas + desertua)
93-9-1 / 93-9-15 74.000 pta.
93-8-1 / 93-8-15 74.000 pta.

- * 17 lagunentzako autokarabarekin goaz, litera, sukalde eta guzti.
- * Bizikleta eta piraguak eramango ditugu, mendiko travesia bat ere egingo dugu oinez.
- * Informazio gehiago: 74 02 99 bulego orduetan. (94) 613 40 75 gauean (Adrian).

HYUNDAI

AUTOMOBILAK

3 URTEKO GARANTIA



HYUNDAI

**HANDIA DEN ZERBAIT
BULTZAKA ARI ZAIZU**

HYUNDAI AUTOMOBILAK:

HYUNDAI-COUPE * HYUNDAI LANTRA

HYUNDAI SONATA * HYUNDAI PONY

Ordezkarri Ofiziala: **MENDARO AUTOAK, S.A.**

ELGOIBAR - Telefonoa (943) 74 32 00

MENDARO - Telefonoa (943) 75 50 72